

7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Baliabideak erabiltzerako garaian 5 dira garrantzitsuenak: Externalizazioa, kostuak murriztea, hobetzeko aukera, iraunkortasuna eta ordezkatzeko aukera.

Alde batetik, externalizazioari buruz, ez zen gure zailtasuna izango, egin beharko genukeena lehengaiak lortzea izango litzateke, hau da, produktua egiteko plastiko birziklagarria lortzea. Horretarako hau ekoizten edo lortzen duten enpresa batekin kontaktatzea izango da gure helburua (funtsezko elkarten atalean azalduta dagoena).

Bestetik, kostuak murriztea oso garrantzitsua izango da gure proiektuan, gehienbat hasieran, honi esker proiektua momentu zailenean aurrera eramatea lagunduko digu (hasieran, kapital gehien behar den momentua). Honen murrizketa lortzeko garrantzia handia edukiko du aurretik aipatutako enprekin egindako akordioak, izan ere, hauei erosiko dizkiegu lehengaiak (gure kostuen zati handiena) eta hauek lagunduko digute produktuaren distribuzioan, horren ondorioz akordioak gure enpresari ekonomikoki ateratzea izango zen helburu nagusia.

Hobetzeko aukerari dagokionez, gure proiektua hasiera batean basikoa izango da, hau da, hasieran gure panpina bezero guztientzako berdina izango da, tamainu berberakoa baina zure irudia eta itsura pertsonalizatuta. Geroago, aldiz, beste panpin mota batzuk eskeintzen hasiko gara bezeroei, non, beste puntuetan azaldutako “panpin basikoari” modifikazio gehiago egin ahalko zaizkion. Bestalde, salmentan ere hobetu egingo dugu, hasieran online salduko dugu (kostuak murrizteko) eta geroago enpresa fisikoa ezarriko genuke, bezero kantitate gehiagora iritsi ahal izateko.

Iraunkortasunak gure proiektuan erraza izango litzateke, izan ere, enpresa asko ditugu gaur egungo merkatuan akordio motaren bat egiteko beharra baldinba dugu. Bai plastikoari begira, bai impresorari begira (hasieran guk ekoiztuko genuke proiektua, baina arazoren bat

edukiz gero gure proiektua iraunkortasuna edukitzeko enpresa asko daude zerbitzu hau eskainiko ziguneta).

Azkenik, ordezkatzeko aukerari ez genioke beldurrik izango, izan ere, pentsatzen dugu gure proiektua nahiko berria dela, munduan zehar ez dute aipamen handirik horrelako panpinak, eta gainera gure hasierako merkatuan, Espainian, ez dira ezagunak eta ezta ere ohikoak, ondorioz ez genuke konpetentzia handirik edukiko merkatuan.

Gure proiektuak arrakasta izan dezan funtsezko baliabide batzuk izango ditugu. Alde batetik gure baliabie fisikoak biltegia eta ordenagailua izango dira. Baliabide intelektualak edo giza baliabideen aldetik, bezeroak erakartzeko abilezia izango litzateke eta gure antolatzeko modua. Finantza baliabideak, aldiz, bankuaren laguntzarenak izango dira, izan ere gure adina dela eta, ez dauzkagu hainbesteko aurrezkiak guzti hori ordaindu ahal izateko, beraz, mailegu bat esaktuko dugu.

